

16. NAO - 2013ko urtarrilaren 24a

31. ALDIZKARIA - 2025eko otsailaren 14a (tarifaren aldaketa)

43. ALDIZKARIA - 2025eko martxoaren 4a (akats zuzenketa)

17. ORDENANTZA, UDALAREN KIROL INSTALAZIOAK ERABILTZEKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUENA

OINARRIA

1. artikulua. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 28. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren babespean ezarri da ordenantza hau.

KONTZEPTUA

2. artikulua. Kirol instalazioak erabiltzeagatik ez da prezio publikorik galdatuko, honelako kasuetan:

a) Gorputz hezkuntzako programa, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleendako, irakastorduetan.

b) Barañaingo Udalak sustatu edo antolatutako jarduerak, eta udal horren laguntza dutenak, interesgarritzat jotzen dituelako.

ORDAINDU BEHARRA

3. artikulua. Kirol instalazioak erabiltzen dituzten pertsona naturalak daude ordainarazpen hauek ordaintzera behartuak.

4. artikulua. Kirol instalazioen eremura sartuz hasten den erabilerarekin batean sortzen da prezio publikoa ordaindu beharra.

KUDEAKETAKO ETA DIRU-BILKETAKO ARAUAK

5. artikulua. Kirol instalazioak modu jarraituan erabiltzen ez badira, prezioa erabili baino lehenago ordaindu beharko da, instalazio beretan edo Kirolaren Udal Bulegoan, horrela behar badu.

6. artikulua. Kirol instalazioak modu jarraituan erabiltzen badira (hamabostaldiko, hilabeteko, hiruhilekoko, urteko abonamenduak), prezioa erabili baino lehen ordaindu beharko da, Kirolaren Udal Bulegoan.

7. artikulua. Sarrera murriztua duten instalazioetara behar den karneta, ordainagiria, abonamendua, eta abar aldean eramanetz joan beharko da. Erabiltzaileek berekin atxiki beharko dituzte instalazioak erabiltzeko sarrerak, karnetak edo abonamenduak, barnean dauden bitartean, instalazioen arduradunek eskatuz gero erakutsi ahal izateko.

8. artikulua. Instalazioen ardura duten langileek sarrerak eskatu eta ez aurkezteak udal kiroldegiaren eremutik kanporatzea izan dezake zehapen.

9. artikulua. Iruzurtzat hartuko da Udalaren edozein kirol instalaziotan behar den sarrerarik edo baimenik gabe sartzea.

10. artikulua. Instalazioen erabiltzaileek aldiro egin beharko diete men udal kiroldegiaren esparruetan portaeraz eta erabileraz ikusgai paratzen diren araei. Halako instalazio batzuetan arau bereziak izanen dira erreserbak egiteko edo funtzionatzeko. Horiek erabiltzaileen eskura egonen dira kirol bulegoan.

11. artikulua. Udal kiroldegiko abonatuak arautegi orokorra bete beharko dute, bai eta udal kirol programako erabiltzaileendako onetsi diren eskubide eta betebeharrak ere.

TARIFAK

12. artikulua. Aplikatu beharreko tarifak arau honen eranskinean agertzen dira; erabiltzaile erroldatuendako nahitaezko baldintza izanen da erroldaturik segitzea instalazioak erabiltzen diren denbora guztian.

13. artikulua. Erroldatu gabeko lagunek kirol instalazioak banaka erabili ahal izanen dituzte, betiere posible bada eta erroldatuei lehentasuna emanez.

Erroldatu gabeek instalazioak erabiltzeko moduko baldintzak betetzen direnean, kuota bat ordaindu beharko dute, erroldatuena baino gutienez ere %50 garestiagoa.

2025EKO TARIFEN ERANSKINA

2025eko TARIFAK		
(euroak)		
	Erroldatuak	Erroldatu gabeak
Abonuak		
–Kiroldegiko fitness eremuko abonua: euro/hilabetea (muskulazioa, squasha, sauna, kardiobaskularra)	35,00	50,00
–Akreditazio txartelaren kopia	6,50	6,50
Instalazioak alokatzea taldeentzat		
–Pabiloia:		
• Kantxa osoa (euro/ordua)	41,00	41,00
• Kantxaren herena (euro/ordua)	18,00	18,00

• Kantxaren bi heren (euro/ordua)	29,00	29,00
• Osorik, harmailak barne (euro/ordua)	61,00	61,00
• Espezializazio gela (euro/ordua)	27,00	27,00
–Atletismoko pistak:		
Pistaren alokairua:		
• Atletismoko pista (bakarrik erabiltzeko) (euro/ordua)	49,00	49,00
• Atletismoko pista (beste batzuekin batera erabiltzeko) (euro/ordua)	33,00	33,00
Banaka erabiltzeko:		
Atletismo pistara arratsaldez bakarrik sartzen ahal da kirola banaka egiteko, eta betiere atletismo eskolaren egutegi eta ordutegiaren arabera		Sarrera doan